



## TRAMITAZIOAK/ LIZENTZIA ESKABIDEAK

### OBRA TXIKIAK EGITEKO LIZENTZIA ESKABIDEA

#### AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

##### 1. OBRA HASI AURRETIK:

*Instantzia orokorra behar bezala beteta, honakoak adieraziz:*

- *Harremanetarako telefonoa.*
- *Obra zein helbidetan edo partzelatan eta zein industrialdetan egin nahi den adieraztea.*

*Egin nahi diren obren aurrekontu xehakatuak.*

●**Oharra:** *Orga jasotzailea erabili behar bada, horren kostua aurrekontuan sartu beharko da, eta horretaz gain:*

\*.- *Erabili beharreko makinari beharrezko ikuskapen guztiak egin zaizkiola egiaztatzen duen agiriaren kopia.*

\*.- *Dagokion aseguruaren ordainketa egunean izatearen gaineko egiaztargiriaren kopia.*

\*.- *sustatzailearen aitortpena, obrak irauten duen bitartean segurtasun-neurriak beteko direla adierazten duena.*

*Bizilagunen elkartearen berariazko baimena jasotzen duen akta: **Lizentzia-eskabidea leihoak edo elementu komunak edota fatxadako elementuak aldatzeko bada.***

***Aldamioak jarri behar badira**, haiek indarreko araudia betetzen dutela egiaztatzen duen ziurtagiria edo txostena, teknikari gaitu batek idatzia, edo, hala badagokio, 2177/2004 Errege Dekretuaren eranskinean adierazitako xedapen zehatzak betetzen direla egiaztatzea. Planoak ere aurkeztu behar dira.*

***Segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko azterketa**, teknikari gaitu batek idatzia: **Lanak estalkian egin behar badira edo aldamioak jarri behar badira.***

***Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-esparruan eraikuntza eta eraispeneko hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duen martxoaren 28ko 23/2011 Foru Dekretuaren arabera,***

***a). < 50Kg***

*a) **Hondakinen pisua 50 kilotik beherakoa bada**, ez da beharrezkoa izango eraikitzailea inskribaturik egotea Nafarroako Gobernuako Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuko EEHak daukaten eraikitzaileen erregistroan.*

***b). 50Kg < 50m3***

Sortzen diren hondakinak 50 m<sup>3</sup>-tik gorakoak ez badira, eraikitzailea aurreko paragrafoan aipatutako erregistroan inskribaturik egon beharko da.

\*.- Sustatzaileak fidantza edo bankuko abal bat aurkeztu beharko du. Horren zenbatekoa, eraikuntza eta eraispén obretako hondakinen tona bakoitzeko 11 euro edo m<sup>3</sup> bakoitzeko 17 euro izanen da —hondakinok aurreikusitako hondakinen hondeaketa lanetako lurra ez badira—. Gutxieneko kopurua 1.000 euro izango da eta gehienekoa eraikuntza obretarako proiektuaren aurrekontuaren %3. Hori guztia, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispéneko hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen martxoaren 28ko 23/2011 Foru Dekretuaren 6.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

## 2. OBRA AMAITU ONDOREN:

Lizentzia ematen den unean, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko zergaren behin-behineko likidazioa onartuko da. Behin obra amaituta ondoren, faktura guztien kopiak udaletxean aurkeztu beharko dira gehienez ere 15 eguneko epean (bai eta eraikuntza eta eraispéneko hondakinak baimendutako kudeatzaile bati eman zaizkiola egiaztatzen duena ere), zergaren behin betiko likidazioa egiteko, hala badagokio. 15 eguneko epearen barnean dokumentazioa ekarri ezean, Udaltzaingoak obrak ikuskatuko ditu txostena egin eta fakturak eskatzeko.

Behin obrak amaitu ondoren, fidantza itzultzeko eskaria aurkeztuko du, 23/2011 Foru Dekretuan ezarritakoa betez. Eskari horrekin batera hondakinak behar bezala kudeatu izanaren egiaztatzea/entregako faktura aurkeztu beharko du, foru dekretu honen 2D eranskinaren arabera. Fidantzaren zatiak itzultzeko eskatzen ahalko da. Horretarako, kudeatzaile baimenduak egindako egiaztatze edo entregako faktura partzialak aurkeztu beharko dira.

Udaleko Ur Zerbitzuan alta emanda egotearen ziurtagiria, edo Udalari ur-kontagailua ordaindu izanaren egiaztatzea.

Obra txikitzat, oro har, hartzen dira eraikinaren egitura-elementuetan eraginik ez dutenak eta eraikinaren erabilera aldatzea ekartzen ez dutenak.